

GAZTE NARRATIBAK ARGENTINAKO EUSKAL ETXEAN

Tesiaren egilea: Oihane Garcia Santiago

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Soziologia 2 Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Mikel Arriaga Landeta

Tesiaren laburpena:

Argentinako Euskal Etxeetan parte hartzen duten 16-30 urte bitarteko gazteen eskutik, diasporan gertatzen diren identitate-eratzeko, artikulazio eta zentzu dinamikak ezagutzeko da ikerketa honen helburu nagusia. Diaspora identitateak ez ezik, gazte, argentinarrak eta euskal identitate dinamikak ezagutu ditugu.

Ikerketa-eremua definitzeko orduan, mundu mailako euskal diasporaren baitan Argentinako euskal diaspora erreferentzia handikoa dela aintzat hartu da. Bestelako diaspora kolektibitateek Argentinan badute aparteko erreferentzialtasuna gainera, argentinarrak Estatuaren eraikuntzan, jendartearen osakeran eta identitatea eratzean protagonismo berezia eman baitzaie.

Bestalde, Argentinako Euskal Etxeetako gazteak identitateari eragiten dion momentu garrantzitsu batean kokatuak daudela kontuan hartu da. Izan ere, aldaketa kognitibo, fisiologiko eta emozional azkarrak biziko dituzte gazteek, azken hiru hamarkadetan Argentinak pairatutako krisi ekonomiko, politiko eta sozial sakonen baitan, 2001ean eztanda egingo dutenak eta argentinarrak klase ertainari bereziki eragingo diotenak.

Testuinguru honetan, diasporak eta gazteak munduan kokatzeko eta mundua esperimentatzeko modu edo baldintza konkretuzat jo daitezke. Halaber, gaur egungo Argentinan Euskal Etxeek gazteei mundua modu espezifiko eta bereizgarrian esperimentatzeko aukerak eskainiko dizkiete.

Hortik abiatuz, diasporan eta bereziki Euskal Etxeetan gazteak bizi dituen esperientzia anitzen berreraiketa esanguratsua burutu da. Narratibaren bitartez, esperientzia-kontaktari nahiz esperientziak transmititzeko moduei heldu zaie, Euskal Etxean gazteak izan duen hastapenekin hasi, identitateari eragin dioten bizipenen bilakaera trazatu eta diaspora esperientziaren amaiera hipotetikoak gerturatu.

Narratibak eraikitzeko gazteen esperientziak, errepresentazioak eta jarduerak ordenatu, sailkatu eta elkarren artean lotu ditugu, denbora, espazio eta protagonista garrantzitsuenak identifikatuz une oro. Euskal Etxeetan gertatzen diren sozializazio-prozesuak, memoria kolektiboak eta espazio sozialei atxiki zaizkien esanahiak, eta atzoko, gaurko zein bihurtuko Euskal Herria, Argentina eta diasporaren errepresentazioak, besteak beste, izan ditugu aztergai.

Narratiben garrantzia plazaratzeaz gain (diaspora, gazteak eta identitate-teorien berrikuspen kritiko batetik), gazteak eta diasporak birkontzeptualizatu dira, eta orientabide analitikoak eskaini dira; gainera, ikerketa-prozesuaren ibilbideen berri eman da, diasporako gazteei egokitutako gogoeta metodologiko zabala burutuz.